

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Agustina Garmendia Lazkano

*Getaria,
Gipuzkoa
(1921-2011)*

Aurkibidea



Biografia



Getarian jaio zen Elkano kalean, hiru senideren artean bigarren. Aita arrantzalea zuen eta baratzean ere aritzen zen; ama arrain-saltzailea zen eta Getariatik Zumaiara 25 kilo arrain buruan eramaten ohitutakoa. 11 urte zituela, salazoi-fabrikan lan egiteko aukera suertatu zitzaionean, eskola utzi zuen nahiz eta maistrak ikasten jarraitzeko bultzatzen zuen. Bizi guztia arraina saltzen eman izan du. Getarian ezkondu eta 4 seme izan ditu.

Zintak

GET-028

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Eider
- **Data:** 2010-09-29
- **Iraupena:** 85 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider

Pasarteak

1. Lehen arrantza gertu egiten zen

- **Erref:** GET-028/022
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:34:11. **Bukatu:** 00:35:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza-kanpainak » Atuna
- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

Normalean Agustinaren aita bere kontura ibiltzen zen arraina harrapatzen bazter-arrantzan. Lehen ez zen arrunta arrantzaleek egun asko ematea kanpoan arrantzan. Behin Jesuitaren osaba kanpoan ibili zen arrantzan, eta eskumuturrekoa ekarri zion oparitan Gijondik.

2. Arraina saltzera Zumaiara baldea buruan hartuta

- **Erref:** GET-028/023
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:35:47. **Bukatu:** 00:38:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Agustinaren ama arraina saltzen ibiltzen zen. Getariatik Zumaiara joaten zen oinez goizean goiz 20-25 kiloko baldea buruan hartuta arraina saltzera.

3. Eskolatik gazitze-fabrikara

- **Erref:** GET-028/025
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:38:52. **Bukatu:** 00:40:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

7 urterekin antxoa-lanean aritzen ziren, eta antxoarik ez zenean, eskolara joaten ziren. 11 urte zituztela, gazitze-fabrika langileak behar ziren eta beraiek sartu ziren. Zer lan-baldintza zituzten azaltzen dute.

4. Gosea ez pasatzeko baliabideak izandakoak

- **Erref:** GET-028/026
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:40:31. **Bukatu:** 00:42:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

<p>Goserik ez zuten pasa, bazutelako janaria nondik lortu: batzuek baratzetik, besteek mahastietatik, eta besteek itsasotik. Oliao erosi egin behar izaten zuten, eta ondo zaintzen zuten zenbat gastatzen zuten. Ogia erosteko jendea nola moldatzen zen azaltzen dute. Beraiek etxean ez zuten ogirik egiten; bai, ordea, taloak.</p>

5. Lanean hasteko grinagatik eskola utzi

- **Erref:** GET-028/027
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:42:25. **Bukatu:** 00:44:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>11 urterekin eskola utzi zuten lanera joateko. Agustinaren amari maistrak

esan zion Agustinak ikasten jarraitu beharko lukeela, buru ona baitzuen. Baina Agustinak ez zuen nahi ikasi, eta uko egin zion baita gauez klase partikularretara joateari ere. Lehen erraz uzten ziren ikasketak lanean hasteko.</p>

6. Gurasoei jorнала emateko poza

- **Erref:** GET-028/028
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:44:31. **Bukatu:** 00:46:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Diru kontuak

Laburpena:

Gaztetan mutil batzuekin hizketan zeudela, ama etorri eta Raimundak asteko jorнала eman zion erosketak egiteko. Lehen pozik ematen zitzaion jorнала gurasoei.

7. Gurasoei errespetu handia zitzaien

- **Erref:** GET-028/029
- **Iraupena:** 0:04:13. **Hasi:** 00:46:26. **Bukatu:** 00:50:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Mutilekin asteburutan egoten ziren. Gauean etxera joateko zer ordutan itzuli behar izaten zuten aipatzen dute. Agustinak zenbait plan prestatu zituen aitak gauez irteten utz ziezaion, baina ez zuen arrakasta handirik izan. Lehen gurasoei errespetu handia zitzaien, eta haien artean ere ez zioten elkarri kontrakoa esaten.

8. Gaztetan mutilekin nola ibiltzen ziren

- **Erref:** GET-028/030
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:50:39. **Bukatu:** 00:53:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

<p>Gauean musika izaten zenean, mutilek ordaintzen zieten neskei ur goxoa. Lehen mutilekin beste era batera erlazionatzen ziren, eta gaur egungo moduari buruzko iritzia ematen dute. Mutilekin dantza lotua egitea bekatua zenez, zigortu egiten zituzten neskak kongregazioan, eta batzuetan baita etxean ere. Hala ere, gurasoei beti errespetua zitzaien.</p>

9. Plazako komediak ikustera pozik

- **Erref:** GET-028/031
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:53:13. **Bukatu:** 00:54:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Zinema
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Plazan komediak izaten ziren, eta denak egoten ziren hari begira aulkietan eserita.

10. Batzuen askatasunari esker, besteen jakinmina ase

- **Erref:** GET-028/032
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:54:15. **Bukatu:** 00:56:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Raimundari askatasun handia ematen zioten gaztetan. Gurasoek errespetua nola lortzen zuten aipatzen dute. Raimundari gauzez ere irteten uzten ziotenez, gero lagunek galdetzen zioten izandako gorabeheren berri.

11. Raimundaren mutil-lagunak

- **Erref:** GET-028/033
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:56:05. **Bukatu:** 00:58:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Zarauztik etortzen zitzaizkion Raimundari mutilak ate joka. Zarauzko beste mutil batekin ere ibili zen Raimunda, eta fabrikara etortzen zitzaion bisitan gorbata jantzita. Baina azkenean, senarra getariarra aukeratu zuen.

12. Mutil-laguna etxean sartzeko pausoa

- **Erref:** GET-028/034
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:58:43. **Bukatu:** 00:59:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Mutilekin ateratzen zirenean nola izaten zen azaltzen dute. Senargaia etxean aurkeztutakoan, laster zen ezkontza.

13. Jesusitaren senar alemaniarra eta haren familia

- **Erref:** GET-028/035
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 00:59:43. **Bukatu:** 01:03:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Jesusitaren senarra Alemanian jaioa zen, familia alemaniarra zuen, baina Zumaian bizi zen. 6 urte bizi izan ziren ezkontuta, senarra lan-istripuan hil zen arte. Bi ume txikirekin gelditu zen Jesusita. Ordutik ez da berriro ezkondu. Senarraren familiak elizarekin izandako harremana azaltzen du Jesusitak.</p>

14. Bizikletan batera eta bestera

- **Erref:** GET-028/038
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 01:04:33. **Bukatu:** 01:07:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

<p>Bizikletan ibiltzen ziren, baina alokairukoan. Lehen trafiko gutxiago zegoen. Bizikletan txangoak nondik egiten zituzten azaltzen dute. Mutilen bizikletan ikasi zuten bizikletan ibiltzen. Behin Agustinak bizikletarekin anis botila bat puskatu zion lagun bati, eta berria ordaindu behar izan zion.</p>

15. Euskal dantzetarako mutilen bila

- **Erref:** GET-028/039
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:07:30. **Bukatu:** 01:08:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autoak
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Euskal dantzak egiteko, neskek mutilen bila joan behar izaten zuten, nahiz eta lotsa eman. Lehen orain baino auto gutxiago ibiltzen ziren errepidean.

16. Gerra nabaritu ez Getarian

- **Erref:** GET-028/040
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:08:42. **Bukatu:** 01:10:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

Getarian ez zuten gerra nabaritu; janzkeran bakarrik antzematen zen bandoak zeudela. Getariako mutil gazteak gerrara eramane zituzten, eta Agustinaren anaia hil egin zen hala.

17. Gerraostean goserik pasa ez

- **Erref:** GET-028/041
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 01:10:08. **Bukatu:** 01:11:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Gerraostean ez zuten goserik pasa. Ogia eramane zuten gazitze-fabrikara, eta antxoak jaten zuten bertan. Olioak nola lortzen eta gordetzen zuten azaltzen dute.

18. Umeak izateko zainketak eta abenturak

- **Erref:** GET-028/044
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:13:50. **Bukatu:** 01:16:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

4 ume izan zituen Agustinak; Raimundak 4 izan eta 2 bizi; eta Jesusitak 2. Haurdun zeudenean lehen ez ziren medikuarengana joaten umea izan arte. Agustinak bikiak izan zituenean sorpresa hartu zuen, ez baitzekien bi zetozenik.

19. Balea zeinek harrapatu?

- **Erref:** GET-028/046
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 01:17:52. **Bukatu:** 01:19:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Gertaera izugarriak eta ezbeharrak
- Fauna » Natura » Itsas fauna » Ugaztunak

Laburpena:

Jesuitaren aitona izan zen balea harrapatu zuten arrantzaleetako bat. Getariak, Zarautzek eta Oriok kontu hartan zer parte izan zuten azaltzen dute. Gaur egun, balea haren hezurak Donostiako aquariumean daude.

20. `Ixil-ixilik´ kanta

- **Erref:** GET-028/048
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 01:21:46. **Bukatu:** 01:24:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Bestelako katak

Laburpena:

<p>Hirurek `Ixil-ixilik´ kanta abesten dute.</p>

Transkripzioa

Ixil-ixilik nago, kale barrenian
ontzi txuri polit bat uraren gaiñian.

Goizeko ordu bietan, esnatutzen gera
arrantzaliarekin joateko urrutira.

Zergatik, zergatik, zergatik, zergatik?
Zergatik negar egin?
Zeruan izarra dago, itsaso aldetik. (bis)

Bat, bat bat, bart parrandan ibili
bart parrandan ibili;
Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili
ez naiz ondo ibili;
Hiru, hiru, hiru, kolkua bete diru,
kolkua bete diru;
Lau, lau, lau, sardiña bakalau.

Anteron txamarrotia,
[Txingarren] bibotia,
haretzek ez daka, ez daka
preso Euskal Herria.

- Jesusita: Ez zekiñat ondo esan den hori.
- Raimunda: Nik bai zakiñat ondo!
- Oso ondo! Oso ondo! Bi ahotsetan ta dana in dezue.
- Agustina: A! Nahi degun eran! [...] Gaztetasunian gaztiak bezela, ta oan ertentzen digun eran.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-12-09

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com